

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

1657

EBAZPENA, 2018ko martxoaren 20koa, Kulturako sailburuordearena, antzerkiko profesionalak prestatzeko egitarau eta jardueri diru-laguntzak emateko balorazio batzordearen batzarkideak izendatzen dituen eta batzordearen osaera argitaratzen duena.

Ikusi da Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2018ko urtarrilaren 17ko Agindua, arte eszenikoak sustatzera bideratutako programak garatzeko diru-laguntzak emateko araubidea ezartzen duena, antzerkiko profesionalak prestatzeko diru-laguntzen modalitatean.

2018ko urtarrilaren 17ko Aginduaren 8. artikulua araber aipaturiko diru-laguntzak emateko balorazio batzorde bat osatuko da eta batzorde horretako kideen izendapena Kulturako sailburuordearen ebazpen baten bidez egingo da.

Horiek horrela, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.— Balorazio batzordeko kideak izendatzea eta batzorde horren osaera argitaratzea. Beraz, batzordeak honako kide hauek izango ditu:

Lehendakaria: Aitziber Atorrasagasti Calcedo (Kultura Sustatzeko zuzendaria).

Kideak:

– Leire Agirregomezkorta Leanizbarrutia anderea.

– Jose Luis Ibarzabal Eguibar jauna.

Idazkaria: Arturo Garcia Fiel jauna (Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko teknikaria).

Bigarrena.— Honako ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dadila agintzea, jende guztiak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 20a.

Kulturako sailburuordea,
JOSÉ ÁNGEL MARÍA MUÑOZ OTAEGI.